

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala**

Bakioko Udalaren eraikinen eta udaleko pertsonalaren udal telefono finko, mugikor eta Internet zerbitzuen kontratuaren adjudikaziora aurkezteko epea luzatzea (iragarkia 2018-01-01 Bakio).

Batetik, Bakioko Udaleko zemendiaren 28ko 374/2017 dekretuaren bidez, hauxe erabagi zan: udaleko pertsonalaren eta udal eraikinen telefono finko, mugikor eta internet zerbitzuen kontratazino espedientea onartzea, beti be Administrazino Klausula Zehatzen eta Preskripzino Teknikoen Agiriak barruan dirala; eta, esleipena gauzatzeko prozedura irekia izapidetzea.

Besterik, 2017ko abenduaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizilean lizitaziorako deialdia argitaratu zan ezkerro, proposamenak aurkezteko azken eguna 2017ko abenduaren 29a izan zan.

Azkenik, Bakioko Udaleko jarduneko alkate andreak, abenduaren 28ko 411/2017ko dekretuaren bidez, erabagi hau hartu eban: Administrazino Klausula Zehatzen eta Preskripzino Teknikoen Agiriei buruz idatzitako argibideak edota zuzenketak onartzea, eta, ondorioz, lizitatzailleek proposamenak 2018ko urtarrilaren 31ra arte aurkezteko aukerea izatea, Bakioko udal erregistroan, goizeko 09:00etatik 14:00etara arte (larunbatetan eta jai-egunetan izan ezik).

Edozelan be, onartutako argibideak edota zuzenketak 2017/12/28ko idatziaren bidez Bakioko Udaleko kontratugilearen profil honetan ageri dira: www.bakio.eus.

Bakion, 2018ko urtarrilaren 5ean.—Jarduneko Alkate andrea, Maria Isabel Barturen Lasa